



eiXna

Empresas de inserción de Navarra
Nafarroako gizarteratzeko enpresak

GIZARTERATZEKO ENPRESA BAT SORTZEKO GIDA

Nafarroako gizarteratzeko enpresak



EDUKIA

Sarrera	3
Zer da Gizarteratzeko Enpresa bat?	3
GE-en erregulazioa	3
Gizarteratzeko Enpresen ezaugarriak	3
Gizarteratzeko Enpresak sortzeko lege-betekizunak	4
Gizarteratzeko Enpresako plantilla	4
Negozio-idea eta merkatu-nitxoa	5
Forma Juridikoa	5
Gizarteratzeko Enpresen forma juridikoak	6
Estatutuak	7
Sozietatearen Xedea	7
Jarduera ekonomikoak	7
Mozkinen banaketa	7
Enpresa eratzeko legezko izapideak	7
1. Izenaren ziurtagiri negatiboa	7
2. Sozietate-kapitalaren gordailua	8
3. Eskritura publikoa	8
4. Behin-behineko IFZ eskaera	8
5. Merkataritzako erregistroa inskribatzea	8
6. Behin betiko IFZ eskaera	8
7. Ziurtagiri digitalaren eskaera	9
8. Behin-behineko kalifikazioa	10
9. Alta EJZ-n	11
10. Enpresa Gizarte Segurantzaz Inskribatzea	11
Eranskinak	12
I_ Irabazi asmorik gabeko elkarrearen estatutuen eredia	12
II_ Gizarteratzeko Enpresen estatutu sozialen eredia	12



SARRERA

Dokumentu honek, Nafarroako Gizarteratzeko Enpresen elkarteak egindakoa, Nafarroan gizarteratzeko enpresa bat (GE) sortzeko prozesuan eman beharreko urrats eta informazio guztia bilduko duen gida praktikoa izan nahi du.

Enpresa sortzeko prozesuari ekin aurretik, argi eduki behar da zer den gizarteratzeko enpresa bat.

ZER DA GIZARTERATZEKO ENPRESA BAT?

Gizarteratzeko enpresak trantsitozko enpresak dira, eta haien helburu soziala **lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea da.**

Gizarteratzeko enpresa (GE) batean sartzen diren pertsonak 6 hilabete eta 3 urte bitarterako kontratatzen dira, eta horietan lan ordaindua egiten dute eta prestakuntza eta orientazioa jasotzen dute, geroago lan-merkatu arruntera igarotzeko.

Gizarteratzeko enpresek ondasunak ekoizteko edo zerbitzuak aurkezteko jardura ekonomiko lizitua gauzatzen dute merkatuko edozein sektoretan. Bazterkeria-egoeratik datozen pertsonen prozesu integratu eta pertsonalizatuak ematen dizkiete gizarteratzeko ibilbideen barruan, ordaindutako lan-jardura batek, lanbide-heziketa egoki batek eta, hala badagokio, esku-hartze edo gizarte-laguntza batek osaturikoak, gero gizarteratzea ahalbidetzeko. Ekonomia sozial eta solidarioaren eredu aintzatetsia dira, eta pertsonen aldeko eta pertsonentzako aukerak sortzea dute helburu.

GE-EN ERREGULAZIOA

Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansarek eta Europako Gizarte Funtsak finantzaturik, GEak 340/2019 Foru Dekretuaren (94/2016 Foru Dekretua aldatzen duena) barruan garatzen dira, eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan estuan egiten dute lan, egoera zaurgarrienean dauden pertsonengan eragina duten plan guztiak gauzatzeko.

Hauek dira 2019ko abenduan egindako aldaketa nagusiak:

- GE sortu berriek laguntza publikoak eskuratu ahal izango dituzte, behin-behineko kalifikaziotik bi urte itxaron behar gabe.
- GEek teknikariengatik diru-laguntzak jasoko dituzte, gizarteratzeko prozesuetan dauden langileen kopuruaren arabera.
- SNE-NLk %33 handituko du teknikari bakoitzeko diru-laguntza, 24.000 euroraino.

GIZARTERATZEKO ENPRESEN EZAUGARRIAK

- GEak ezaugarri hauek dituzten **Enpresak** dira: ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzten merkataritza-sozietateak eta kooperatibak dira. Irabazi ekonomikoak enpresara itzultzen dira.
- **Helburu sozial** bat dute: bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea, lan-merkatuan errazago sar daitezen.
- **Ez dute irabazi-asmorik:** irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatzen dituzte, eta kapital sozialaren erdia baino gehiago horrelako erakundeetatik dator.
- **Gizarteratzeko** prozesuan dauden pertsonak: gutxienez plantillaren erdia gizar-ter-zerbitzu publikoetatik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak dira.



- **Prestakuntza:** prestakuntza eta laguntza ematen dute, eta, beraz, gizarteratzeko prozesuan dagoen langile bakoitzak ibilbide pertsonalizatua du.
- **Trantsitoko enpresak:** gizarteratzeko prozesuan dauden langileek gutxienez 6 hilabetez eta gehienez hiru urtez iraun dezakete gizarteratzeko enpresan.
- **Gizarte-ekonomia:** gizarteratzeko enpresak gizarte-ekonomiaren familiakoak dira, haien helburua ez baita onura ekonomiko hutsa, gizarte osoaren onura baizik.

GIZARTERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO LEGE-BETEKIZUNAK

- Sustatzaileek irabazi-asmorik gabeko erakunde bat edo batzuk izan behar dute, eta horien partaidetzak enpresaren kapital sozialaren %51 bete behar du.
- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea izan behar du xede. Ezin du bere helburu sozialaz bestelako jarduera ekonomikorik egin.
- Merkataritzea-sozietate edo kooperatiba-sozietate gisa eratuta egon behar du, eta forma juridikoari dagokion erregistroan inskribatuta, eta baita Nafarroako Foru Komunitateko Gizarteratzeko Enpresen Administrazio Erregistroan ere.
- Gizarteratzeko ibilbideetatik eratorritako konpromisoak betetzeko behar diren baliabideak izan behar ditu, eta urtero balantze sozial bat aurkeztu behar du.
- Gutxienez ekitaldi bakoitzeko emaitzen %80 bere ekoizpen- eta gizarteratzeko egiturak hobetzeko edo handitzeko aplikatu behar du.
- Urteko zenbaketan, gizarteratzeko prozesuan dauden langileen ehuneko jakin bat bete behar da: plantilla osoaren % 30a gutxienez, jardueraren lehen hiru urteetan, eta % 50a gutxienez, laugarren urtetik aurrera. Gizarteratzeko prozesuan dauden langileen kopurua ezin da bi baino txikiagoa izan.

GIZARTERATZEKO ENPRESAKO PLANTILLA

Gizarteratzeko enpresaren berezitasunak direla eta, beharrezkoa da profesional-taldea izatea, bere alderdi ekonomikoak (enpresaren kudeaketa bere horretan) eta sozialak (langileak gizarteratzeko xedea) bateratzeko. Horretarako, GEak plantilla finkoa izan beharko du, gutxienez honako lanpostu hauekin:

- **Gerentzia:** bere eginkizunak gizarteratzeko enpresaren kudeaketa soziala eta ekonomikoa dira, eta baita komunikazio- eta ordezkaritze-lanak ere. Lanpostu horretarako profil gomendagarria enpresa-gaitasunak eta gizarte-lanaren esparruan egoera zaugarrian dauden kolektiboetako buruzko ezagutzak dituen pertsonarena da.
- **Laguntzako langileak:** eginkizunak orientatutako eta laguntza-ekintzak betetzea dira, gizarteratzeko langileen ondoan egoteko eta enpresa normalizatuarekin bitartekaritze lanak egiteko, gero integratu daitezkeen. Lanpostu horretarako profil gomendagarria gizarteratze arloko prestakuntza teknikoa edo antzekoa duen pertsona da.
- **Produkzio langileak:** funtzioak produkzioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua Antolatzea eta gainbegiratzea dira. Langile horientzat gomendatzen den profila enpresaren jarduera ekonomikoan ezagutza eta esperientzia duten pertsona da, baina, laguntzean inplikatzeko ezinbestekoa denez, gomendagarria da egoera zaugarrian dauden taldeekin esperientzia izatea.





NEGOZIO-IDEIA ETA MERKATU-NITXOA

Era berean, gizarteratzeko enpresa bat sortzen hasi aurretik, funtsezkoa da negozio-idea bat izatea. Gizarteratzeko enpresak enpresak dira, eta, beraz, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko jarduera ekonomikoak egiten dituzte eta merkatuan beste batzuekin lehiatzen dira.

Gizarteratzeko enpresaren jarduera ekonomikoa gizarteratzeko langileen profilerak egokitu behar da, batez ere kualifikazio urriko pertsonetara. Normalean, enpresa-ekimen horiek eraikuntza, garbiketa, industria-manipulazioak, ehungintza, lorezaintza, etab. bezalako jarduerak gauzatzea erabaki ohi dute. Jarduera horien ezaugarriak eskulan intentsiboak, kualifikazio txikikoak eta kapital-intentsitate txikikoak izatea dira.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar zein den GEen helburua: kontratatutako eta prestatutako pertsonak ondoren lan-merkatu normalizatuan sar daitezela lortzea. Horregatik, garrantzitsua da lan-merkatuaren joerak, enplegarritasun-nitxo potentzialak dituzten okupazioak eta sortzen ari diren ekoizpen-sektoreak ere kontuan hartzea, hala nola ekonomia berdea, zerbitzu soziosanitarioak eta zaintzakoak, kulturaren eta aisiaren industria, etab.

Garrantzitsua da GE berriaren xede den negozio-sektorea eta hura sortzeko unean jada funtzionatzen duten gizarteratzeko enpresak bereiztea.

FORMA JURIDIKOA

Forma juridikoa aukeratzea oso garrantzitsua da edozein enpresarentzat, baita gizarteratzeko enpresarentzat ere, erakunde sustatzaileen antolaketa- eta partaidetza-eredua definitzen baitu, eta baita gizarteratzeko enpresa gisa duten araudi espezifikoaz harago egongo den araudia ere.

Gizarteratzeko enpresen araubidea erregulatzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legean ezarritakoaren arabera, gizarteratzeko enpresak merkataritza-sozietate edo kooperatiba gisa era daitezke. Hala, gizarteratzeko enpresek forma juridiko hauek har ditzakete:

- Sozietate mugatua
- Sozietate anonimoa
- Lan-sozietate mugatua
- Lan-sozietate anonimoa
- Kooperatiba-sozietatea

Aukeratu beharreko forma juridikoa enpresa-proiektuaren beharren arabera izango da. Hala ere, kudeaketaren eraginkortasunari eta kontrolari dagokienez, gehienetan gomendagarria da gizarteratzeko enpresak sozietate mugatu gisa eratzea.

Izan ere, Nafarroako gizarteratzeko enpresa gehienak sozietate mugatuak dira.

Jarraian, enpresa-forma juridiko bakoitzaren ezaugarri nagusiak jasotzen dituen laburpen-taula ageri da:



GIZARATERATZEKO ENPRESEN FORMA JURIDIKOAK

SOZietate MUGATUA

Bazkide kopurua: 1 gutxienez

Kapital soziala: 3.000 euro.

Erantzukizuna: Kapital sozialera mugatua

Fiskalitatea: Sozietateen gaineko zerga

Gizarte Segurantzza: Araubide orokorra edo autonomoak, kasuan kasukoa.

Oinarrizko legeria: 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina.

SOZietate ANONIMOA

Bazkide kopurua: 1 gutxienez.

Kapital soziala: 60.000 euro.

Erantzukizuna: Kapital sozialera mugatua..

Fiskalitatea: Sozietateen gaineko zerga.

Gizarte Segurantzza: Araubide orokorra edo autonomoak, kasuan kasukoa.

Oinarrizko legeria: 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina.

LAN SOZietate MUGATUA

Bazkide kopurua: Gutxienez 3 - Gutxienez 2k kontratu mugagabea izan behar dute eta kapital sozialaren % 50 baino gehiago. - Bazkide batek ere ezin du izan kapital sozialaren 1/3 baino gehiago.

Kapital soziala: 3.000 euro.

Erantzukizuna: Kapital sozialera mugatua.

Fiskalitatea: Sozietateen gaineko zerga.

Gizarte Segurantzza: Araubide orokorra edo autonomoak, kasuan kasukoa.

Oinarrizko legeria: Lan eta Partaidetza Sozietateei buruzko 44/2015 Legea.

LAN SOZietate ANONIMOA

Bazkide kopurua: Gutxienez 3 - Gutxienez 2k kontratu mugagabea izan behar dute eta kapital sozialaren %50 baino gehiago. - Bazkide batek ere ezin du izan kapital sozialaren 1/3 baino gehiago.

Kapital soziala: 60.000 euro.

Erantzukizuna: Kapital sozialera mugatua

Fiskalitatea: Sozietateen gaineko zerga

Gizarte Segurantzza: Araubide orokorra edo autonomoak, kasuan kasukoa.

Oinarrizko legeria: Lan eta Partaidetza Sozietateei buruzko 44/2015 Legea.

SOZietate KOOPERATIBOA

Bazkide kopurua: Gutxienez 3 - Bazkide batek ere ezin du izan kapital sozialaren 1/3 baino gehiago.

Kapital soziala: Estatutuen arabera

Erantzukizuna: Kapital sozialera mugatua

Fiskalitatea: Sozietateen gaineko zerga (araubide berezia)

Gizarte Segurantzza: Araubide Orokorra edo autonomoak, baina bazkide guztiak araubide berekoak.

Oinarrizko legeria: Abenduaren 11ko 14/2006 Nafarroako kooperatiben foru legea.



ESTATUTUAK

Estatutuak enpresako bazkideek beren enpresari ematen dizkioten arauak dira, eta horien arabera arautzen dira beren harremanak eta sozietatearen barne-araubidea. Horregatik, ezinbestekoa da sortu nahi den enpresaren ezaugarrietara egokitzea.

Gizarteratzeko enpresa baten estatutuak idaztean kontuan hartu beharreko elementu batzuk:

SOZIETATEAREN XEDEA

94/2016 Foru Dekretuaren 2. artikulua arabera, estatutuen helburu nagusia gizarteratik baztertuta dauden pertsonak gizarteratzea izango da, ohiko enplegura igarotzeko prozesu gisa.

JARDUERA EKONOMIKOAK

94/2016 Foru Dekretuaren 3.d) artikulua adierazten du ezingo dela sozietatearen xedean adierazitakoez bestelako jarduera ekonomikorik gauzatu; hau da, jarduera bat estatutuetan zehaztuta ez badago, enpresak ezin du gauzatu, INAEMi jakinarazi eta hark onartu ezean. Hori dela eta, estatutuetan sartzen diren jarduera ekonomikoak behar bezain zabalak izatea gomendatzen da, enpresak jarduera berri bat gauzatzea erabakitzen duen bakoitzean estatutuak aldatu behar ez izateko.

MOZKINEN BANAKETA

94/2016 Foru Dekretuaren 3.e) artikulua adierazten du ekitaldi bakoitzean lortutako emaitzen % 80, gutxienez, ekoizpeneko eta gizarteratzeko egiturak hobetzeko edo handitzeko aplikatuko dela. Baldintza hori betetzea errazteko, ehuneko hori alde aurretik erabakitzea (% 100 ere izan daiteke) eta sozietatearen estatutuetan sartzea gomendatzen da.

ENPRESA ERATZEKO LEGEZKO IZAPIDEAKA

Estatutuak egin ondoren, gizarteratzeko enpresa eratzeko behar diren administrazio-izapideak egiteko unea da. Izapide horiek beste edozein merkataritza-sozietatek edo kooperatibak egiten dituen berberak dira; gizarteratzeko enpresaren kalifikazioa lortzeko izapidea baino ez da gehitu behar.

Horretarako, gida honetan adierazitako urratsei jarraitzeaz gain, Nafar Lansarek pertsona ekintzaileentzat bere web orrian jartzen duen *“Ekintzailearen gida praktikoa”* kontsulta dezakezu, enpresa bat sortzeko behar den informazio guztia biltzen duena.

1. IZENAREN ZIURTAGIRI NEGATIBOA

Sozietatearen izenaren eskaera Madrilgo Merkataritza Erregistro Nagusiari (Izenaren ziurtagiri negatiboa edo izen sozial bera ez izatearen ziurtagiria eskatzea): inprimakian hiru izen aukeratuko dira lehentasun-ordenaren arabera. Izena bazkideetako edozeinek eskatzea gomendatzen da, jaso duen pertsonak bakarrik erabil baitezake izena. 15 egun inguru behar ditu posta arruntez eta 5 urgentziaz. Izena 15 hilabetez gordetzen da. Merkataritza Erregistro Nagusia Madrilgo Príncipe de Vergara kaleko 94. zenbakian dago.



2. SOZIETATE-KAPITALA GORDAILUTZEA

Bazkideek enpresaren kapital sozialaren ekarpena banku-erakunde batean gordailutzea. Gutxienez 3.000 € SL bat izanez gero.

3. ESKRITURA PUBLIKOA

Bazkideek Sozietatea Eratzeko eskritura notarioaren aurrean sinatzeko egintza. Notarioari dokumentazio hau aurkeztu behar zaio:

- Kapitala eta banaketa bazkide bakoitzarentzat.
- Datu pertsonalak eta NANaren fotokopia.
- Helbidea, adina, ezkontzaren araubide ekonomikoaren egoera zibila, lanbidea, jaioteguna, NAN zenbakia.
- Enpresaren helbide fiskala: aldaketarik izango ez duen bat aukeratzea gomendatzen da; hala izan ezean, helbidea aldatzeagatik eskriturak berriro ordaindu beharko lirateke.
- Helburu soziala: ahalik eta zabalena.
- Administratzailearen edo/eta ahaldunaren izendapena.

Sozietateko kide guztiek bertan egon behar dute eskriturak sinatzen direnean, NANaren jatorrizkoak, sozietatearen izena eta kapitalaren banku-gordailua egin izanaren ziurtagiria aurkeztuta. 3 edo 4 egun igaro ondoren, eskriturak jaso egingo dira, eta une horretan ordaintzen da notariotzaren kostua.

4. BEHIN-BEHINEKO IFZ ESKAERA

Enpresa zerga-ondorioetarako identifikatzeko behin-behineko IFZ lortzea. Nafarroako Zerga Ogasunaren bulegoan (Esquiroz kalea 16) agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- CI eredia (Erakundearen Errolda Aitorpena)
- Estatutuak
- Jatorrizkoa eta kopia
- Bazkideen NANA

Eskabidea eratu (Eskritura) eta hurrengo hilabetean egin behar da, jarduera hasi eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren likidazioa egin aurretik. Eskuratzea doakoa da. Lan Sozietateak eta Kooperatibak zerga honetatik salbuetsita daude.

5. MERKATARITZA ERREGISTROAN INSKRIBATZEA

Sozietate bat Merkataritza Erregistroan inskribatzeak sozietatearen gaitasun juridiko osoa sortzen du. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Iruñeko Premin Pasealekuko 4. zenbakian dagoen bulegoan:

- Eskrituraren jatorrizkoa eta kopia
- Sozietatearen IFZ
- ITPren likidazioa



6. BEHIN BETIKO IFZ ESKAERA

Merkataritza Erregistroan inskribatu ondoren, Zerga Ogasuneko bulegoetara itzuli behar da eskrituraren lehen kopiarekin, erakundearen behin betiko IFZren identifikazio-txartela jasotzeko.

7. ZIURTAGIRI DIGITALA ESKATZEA

Sinadura elektronikoak Internet bitartez Nafarroako administraziopublikoekin izapideak modu seguruan egiteko aukera ematen dizu. Hori ezinbestekoa da enpresarentzat, izapide asko bide telematikoz nahitaez egin behar direnetik. Sinadura elektroniko guztien artean, Nafarroako Gobernuak egiten ditu Monetaren eta Tinbrearen Fabrika Nazionalak (FNMT) igorritako sinadura digitala lortzeko identifikazio-jarduerak.

Erabiltzailearen ziurtagiria lortzeko prozedurak 3 fase ditu:

Lehenik eta behin, Monetaren eta Tinbrearen Fabrika Nazionalaren webgunera sartu behar da, helbide honetan:

<https://www.sede.fnmt.gob.es/certificados/certificado-de-representante> eta urrats batzuk jarraitu. Lehenengoa eskaera-kodea lortzea da. Horretarako gaitutako laukian eskatzailearen, hau da, sinadura digitala eskatzen den erakundearen, IFZ sartzea. Kode hori inprimatu edo idatzi, hurrengo urratserako beharrezkoa baita.

Bigarrenik, aurreko urratsean eskaera-kodea lortu ondoren, ziurtagiriaren eskatzaileak egiaztapen-bulego batera joan behar du bere nortasun-agiriarekin eta kodearekin. Aurkeztu beharreko dokumentazioa webgune honetan dago:

<https://www.sede.fnmt.gob.es/certificados/certificado-de-representante/documentacion>

Hirugarrenik, sinadura elektronikoak deskargatu behar da nabigatzailean. FNMTren webgunetik egin behar da, bulegoan nortasuna egiaztatu eta bi ordura, gutxi gorabehera. FNMTren webguneko "Ziurtagiria deskargatu" atalean IFZ eta horretarako prestatutako eremuan lehenengo urratsean lortutako eskaera-kodea sartu behar dira. Ziurtagiriaren prezioa ordaindu behar da, eta horretarako kreditu/zordunketa-txartela baino ezin da erabili.

Deskarga automatikoa da. Deskarga egin dela nabigatzailean sartuta eta honako helbide honetara idatzita egiazta daiteke: tresnak/Interneteko aukerak/edukia/ziurtagiriak. Erabiltzailearen ziurtagiriaren deskarga eskaera egin zen ekipo eta nabigatzaile beretik bakarrik egin ahal izango da.

Garrantzitsua da honakoak kontuan hartzea:

Eskuratzeko prozesu osoa ekipo beretik egin behar da, erabiltzaile eta nabigatzaile berekin.

Ez ahaztu deskarga amaitu eta berehala babeskopia egitea. Horri esker, sinadura digitala beste ekipo batzuetan instalaturik eduki ahal izango da, eta ez da berriro lortu behar azaroren batengatik ziurtagiria galduz gero.

Ziurtagiri digitalak bi urteko balioa du pertsona juridikoentzat. Agintaritzaren ziurtatzailetik (FNMT) abisu bat jasotzen da posta elektroniko bitartez, iraungitzea baino bi hilabete lehenago berritzeko; beraz, garrantzitsua da posta elektronikoko helbidea idaztea sinadura elektronikoak eskuratzeko.



8.BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA

Gizarteratzeko enpresaren izaera lortzea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak urriaren 26ko 94/2016 Foru Dekretuan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Era telematikoan izapidetu daiteke hemen:

https://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/6651/Calificacion-provisional-y-registro-como-Empresa-de-insercion-socio-laboral-en-Navarra-

Edo Nafar Lansare zerbitzuaren Tomas Caballero Parkeko bulegoan, Iruñeko "II. Printzearen Gotorlekua" eraikinean.

Dokumentazioa:

- Behin-behineko kalifikazioaren eta erregistroaren eskaera, eredu ofizialaren arabera behar bezala beteta.
- Bere nortasun juridikoari dagokion erregistroan inskribatzeari buruzko dokumentazioa.
- Eratzeko eskritura, enpresa eskatzailearen estatutuak eta erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren ahalordea, betiere estatutuetan jasota ez badago.
- Erakunde sustatzailearen edo sustatzai-leen estatutuak.

- Enpresan gauzatzen duen jarduerari buruzko memoria, honakoak zehaztuta: egiten dituen gizarteratze prozesuak, ematen duen prestakuntza eta ondoan aritzeko dituen baliabideak.
- Eskatzailearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, xede sozialaz bestelako jarduera ekonomikorik ez egiteari buruzkoa.
- Gizarteratzeko akordioak, gizarteratzeko prozesuetan dauden langileek sinatuak.
- Plantillako langileen zerrenda, gizarteratzeko prozesuetan daudenak eta laguntza teknikorako kontratatuta daudenak zehaztuta (I. eranskina).
- Enpresaren lan-bizitzari buruzko txosten eguneratua (VILE)



9. EJZ-N ALTA EMATEA

E.J.Z.-n alta emanda egotearen aitortpena. Horren kostua ez da finkoa. Enpresa, lanbide edo arte jarduerak zergapetzen dituen zerga da. Alta-eskaera, likidazioa eta zerga horren bilketa enpresa helbideraturik dagoen edo enpresa-jarduera gauzatzen den udalean egiten da.

- Unitate izapidegilean bertan bete beharreko eskabide-inprimakia. Bertan udal bakoitzak EJZn alta emateko bere inprimakia duela adierazi behar da.
- Jardueraren titularraren eta izapidea egiten duenaren NAN edo IFZ (fotokopia) aurkeztea, eskatzailea titularra ez bada. NANaz gain, titularraren NANren fotokopia eta titularraren baimena ere aurkeztu beharko dira.
- Jarduera egingo den lokalaren identifikazioa, adibidez, hiri-kontribuzioaren ordainagiriarekin.

10. ENPRESA GIZARTE SEGURANTZAN INSKRIBATZEA

TGSSk Kotizazio Kontu Kode Nagusia (KKK) esleitzen dio enpresari, Gizarte Segurantzaren sistemako araubidean dituen betebeharrak identifikatzeko eta kontrolatzeko. Eskaera TA6 inprimakiaren bitartez egin behar da, eta inprimaki horrekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira helbideari dagokion Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren administrazioan:

- EJZn alta eman izanaren jatorrizkoa eta kopia.
- LAABen alta eman izanaren fotokopia.
- Enpresaburu autonomoaren NANaren fotokopia.
- INSSek edo mutualitateak lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak estaltzeko emandako aukera (hori ez da aparteko dokumentu bat, inprimakian bete beharreko lauki bat baizik).



ERANSKINAK

I_ IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAREN ESTATUTUEN EREDUA

II_ GIZARTERATZEKO ENPRESEN ESTATUTU SOZIALEN EREDUA



**Asociación de Empresas de
Inserción de Navarra**

Calle San Blas, 2
31014 Pamplona

T. 689 917 693

info@einavarra.org

www.einavarra.org

